

Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Lehenengo maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Argitaratzen du: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimatzen du: Digitalia

Ari gara

Iaz, EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaieela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1.mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta batetik, eta gelako ikasle kopurua bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egi-tea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtso gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburu honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkieteen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar-garrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guztia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu ziren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

1. Datu pertsonalak	7
2. Etxebizitza	17
3. Animaliak	31
4. Ogibidea	43

1

Datu pertsonalak



Amaiaren familia



Hau da Amaia!

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** entzunaren ulermena.
- **Testua:** familaren deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio era: entzungai pedagogikoa.
 - Komunikazio kanala: zuzenean irakurria.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Euskara Batuaren doinuera eta ahoskera.
 - Eginkizunak: albuma osatzea.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ bereiztea
 - Asimilazioak: ez naiz> [enaiz]
ez dira> [eztira]
 - Doinuera eta intonazioa

Prozedura

Ikasleak zinta 2-3 aldiz entzungo du eta Amaia familiako senideen izenak asmatu behar ditu. Bukatutakoan zuzendu eta ziurtatu ariketaren helburua lortu den.

Testua:

Ni Amaia naiz. Julia eta Luis nire familiako zaharrenak dira. Irungoak dira baina Donostian bizi dira. Jubilatua daude eta bidaia asko egiten dituzte. Ni askotan joaten naiz Donostiara nire Donostiako aiton-amonak, Julia eta Luis, ikustera.

Nire aita Patxi da, irakaslea da eta 46 urte ditu. Bere emaztea Mertxe da, nire ama. Mertxek 45 urte ditu eta medikua da. Mertxe Iruñekoa da eta bere gurasoak ere bai.

Nire Iruñeko aiton-amonak Elisa eta Joxe dira. Elisa eta Joxek okindegi txiki bat dute Iruñeko Alde Zaharrean. Iruñeko aiton-amonak kotxe berria erosi dute eta ni eta nire anaiak, Jon eta Mikel, irrikitan gaude kotxe berria estreinatzeko.

Datorren igandean nire urtebetetzea da eta denok Iruñean elkartuko gara nire urtebetetzea ospatzeko.

Hau da Amaia!



2.A

Jarduera



Mintzamena

Nire familiaren berri

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamena.
- **Testua:** familaren deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa ematea.
 - Komunikazio era: bakarkako hizketaldia.
 - Komunikazio kanala: aurrez aurre.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Euskara Batuaren doinuera eta ahoskera.
 - Eginkizunak: norberaren familiaren berri ematea.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ bereiztea
 - Asimilazioak:
 - ez naiz> [enaiz]
 - ez dira> [eztira]
 - Doinuera eta intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nork (Nor 3.)
 - Baiezko perpausak
 - Perpaus elkartuak:
 - Emendiozkoa: eta
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Ikasleak binaka jarrita, batek ahoz bere familiaren berri emango dio besteari. Beste ikasleak entzundako informazioaz albuma beteko du. Beraz, paperean izango dituen datuak alboaren familiakoak izango dira. Nahiz eta helburua albumeko datuak (izenak) kontatu, ulertu eta dagozkien hutsuneetan jartzea izan, ikasleari bere familiako senideei buruzko datu gehiago emateko eskatu diogu, jatorria, adina, bizilekua eta lanbidearen inguruan bilzen direnak gehi daitezke.

2.B

Jarduera



Idazmena

Gezurrak esaten

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** idazmena.
- **Testua:** familaren deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa ematea.
 - Komunikazio kanala: eskuz bat–batean idatziak.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Eginkizunak: bestearen familiaren berri ematea.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Izen arruntak.(eremu semantikoari dagozkion sustantiboak)
 - Adjetiboak: kualifikatiboak.
 - Aditza: indikatibo orainaldi puntukaria.

Prozedura

Orain ikasleak ezagutzen du bere ondokoaren familia eta idatziz hori da deskribatu behar duena, bestearen familia.

Deskribapen honetan **GEZUR** bat sartuko du, ahalik eta ondoen izkutatua. Bukatutakoan idazlana elkarri pasatuko diote eta bakoitzak bere familiakoa ez den datua bilatuko du. Bukaera txapelketa moduan antola daiteke: idazlana bukatutakoan paperari buelta eman-go diote denek bukatu arte eta denek bukatutakoan, bat, bi, eta hiru esan eta gezurra nork lehengo aurkitu izango da lehian jariko dena.

A ikasleak ongi kontatu badu eta B ikasleak ondo ulertu eta gainera buruan duena ondo idatzi badu, erraza izango da gezurra asmatzea. Baina gauza asko dira ondo egin behar direnak.

3.

Jarduera



Mintzamina

Esan du... Esan dit...

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamina.
- **Testua:** familaren deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazioa ematea.
 - Komunikazio era: bakarkako hizketaldia.
 - Komunikazio kanala: aurrez aurre.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Euskara Batuaren doinuera eta ahoskera.
 - Eginkizunak: jaso duen informazioa beste bati kontatzea.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ bereiztea
 - Asimilazioak:
 - ez naiz> [enaiz]
 - ez dira> [eztira]
 - Doinuera eta intonazioa
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak
 - Aditza: indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nork (Nor 3.)
 - Nor-Nori-Nork (Nork 3.)
 - Baiezko/ Ezezko perpausak
 - Perpaus elkartuak:
 - konpletiboa: -ela
 - emendiozkoa: eta
 - aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Orain arte bakoitzak izan duen bikotea aldatu eta berriro familiaren deskribapena egin beharko dute. Baina oraingoan lehen izandako ikaskidearen familia aurkeztuko dio bikote berriari, hau da, entzun duen deskribapenaren berri eman beharko du.

Ariketa honen bidez ikasleak zehar-estiloa erabiltzera bultzatuko ditugu: Ikerrek esan du Mikelen ama irakaslea dela...

4.
Jarduera

Jilda Ahizpak



Irakurmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** irakurmena.
- **Testua:** komikia.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: informazioa jasotzea eta zabaltzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: informala.
 - Komunikazio-kanala: komikia.
 - Erabilera esparrua: aisialdikoak.
 - Gaia: ezaguna
 - Eginkizunak: jasotako informazioaren berri ematea.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Gertaeraren egilea (NORK/NOR)
 - NORI zuzendua
 - NON, NOIZ gertatua...
 - NOLA gertatua...
 - Orain eta lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak, ez burutu-puntukariak.
 - Narrazioaren adierazleak:
 - Sarrera: behin, behin batean, egun batean,...
 - Erritmo-aldatzaileak: berehala, bat-batean, halako batean, orduan...
 - Aldi-antolatzaileak: hurrengo egunean, biharamunean...
 - Norbaiten esanak, usteak, galderak, gogoak... adierazteko zeharbideak: -ela, -en
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, baino lehen, aurretik, -t(z)ean, arte...

Prozedura

Biren artean komiki osoa ulertzea lortu behar dute. Bakoitzak bere zatia irakurri eta ulertu-takoan A IKASLEAK (hasiera duenak) hasiera kontatuko dio B ikasleari. Gero, B IKASLE-AK (bukaera duenak), bukaera azalduko dio A ikasleari ipuin osoaren berri izateko.

N.A. Parekatu esaldiak!

Helburua

Galdera eta erantzunak parekatuz bertan agertzen den informazioa emateko erabiltzen diren edukietan arreta jartzea.

Prozedura

Galderei dagozkien erantzunak zein diren asmatu eta laukitxoak bete behar dituzte.

N.B. Nor da bestea?

Helburua

Aurkezpenak egiteko azaldu zaion funtzioa menperatzea.

Prozedura

Koadrotxoan agertzen dena irakurri eta beheko elkarrizketa osatu behar da, honetarako koadrotxoan agertzen dena erabili beharko dute.

Arian, arian edozer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hirunaka jarri eta hiru fitxak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).

2 Etxebizitza

Etxe bila



1.

Jarduera



Entzumena

Nolako etxea nahi duzu?

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** elkarrizketa. Bi pertsonaren artekoa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: kaseta.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena.
 - Gaia: ezagun samarra.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak:
 - A. Ikastunitate osoan zehar jorratuko den gaia zein den ohartaraztea.
 - B. Elkarrizketatxo hau entzun eta gero, ikasleek informazio orokorra jaso duten ala ez egiaztatzea.

Helburua ez da ikasleek narrazioa goitik behera ulertzea, ideia orokorra baizik. Gainera, hitz gakoak ulertuz, ulermenerako estrategiak praktikan jartzen ikasiko dute.

- **Adierazpide linguistikoak:**

- Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[etzira]
- Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak: etxebizitzaren alorrean oinarritzekoak direnak.
 - Adjetibo kualifikatiboak. Graduatzaileak: oso, -ago(a), -egi(a).
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Ahal izan
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

• **Adierazpide pragmatikoak:**

- Iritzia eskatzea
- Adostasuna adieraztea.

Prozedura

Aurrena lehenengo galderari erantzungo diote. Helburua bikoitza da: alde batetik ikasleek, etxebizitzaren inguruko gaiari sartu baino lehen, zer dakiten (lexikoa batez ere) ikustea, eta bestetik, berotze ariketa gisa erabilia, gaia aurkeztea. Gero elkarriketaren gaineko ulermenari ekingo diote. Hasieran deus ere irakurri gabe, entzun dezatela entzungai osoa. Bertan, etxebizitza bat erostea hizpide dutela, bi pertsona arituko dira hizketan. Ikasleek, kontestuz jabetzen direnean, ikasle orriari dituzten galderak irakurriko dituzte eta, entzungaia berriro aditutakoan, erantzungo dute. Behar izanez gero edo ea asmatu duten ala ez konprobatzeko, berriro jar daiteke entzungaia testua aurrean dutela. Gutxienez testua bi aldiz entzutea komeni da.

Ikasleek entzungo dutena:

Entzungaia

Nolako etxea nahi duzu?

Beñat: Gezurra dirudi, Begoña, baina urte bete pasatu da Donostiatik hona, Iruñera, lan egitera etorri ginenetik.

Begoña: Bai, hala da. Denbora azkar joaten da. Dena den, orain denbora aipatu duzula, zerbait esan behar nizun. Hara, lana ongi doa, beraz hemen Iruñean geratzea pentsatu behar dugu. Nik uste dut...

Beñat: Bai, badakit zer esan behar duzun. Etxea erosteko garaia ailegatu dela, baietz?

Begoña: Hara! eskerrak ez dugun aposturik egin!

Beñat: Bai, nik ere honetaz pentsatu dut eta gehiago esango dizut, nolako etxea nahi dudan ere pentsatu dut.

Begoña: Ez da txaleta izango?

Beñat: Ez, ez, ez, txaletak ez zaizkit gustatzen. Lorategi txiki bat dute eta gero ea nork zaintzen duen; belarra dela, loreak direla... ez, ez. Gainera lorategia aprobetxatzen dute txakurra izateko. Eta txakurra zaunka hasten denean, zer? nork aguntatu behar du? Nik pisua, atiko bat, nahi dut. Ez du oso handia izan behar. Bi logela, sukalde bat eta bi komun baldin baditu, konformatuko naiz. A, eta hori bai! terraza handi bat izan behar du, udan eguzkia hartzeko eta lasai ederrean afaltzeko. Zer diozu, begoña, zer iruditzen zaizu?

Begoña: Beno, atiko bat erostea ez dago gaizki, baina txaleta erostea gehiago gustatzen zait, hain garestiak izango ez balira!

Beñat: Zerorrek esan duzu. Txaletak garestiegiak dira. Hobe da orain pisu merkeago bat erostea. Gero, aurrerantzean diru pixka bat aurrezten dugunean, saiatuko gara txalet bat erosten. Ados?

Begoña: Konforme. Noiz pasako gara inbiliarriatik?

Beñat: Hurrengo astean, adibidez. Zer moduz asteazkenean?

Begoña: Ederki, nik asteazken arratsaldean ez dut ezer. 16:30etan joan gaitetzke.

Beñat: Oso ongi.

2. Jarduera **Hitzak gogoratuz**



Lexikoa

Prozedura

Ariketa honen helburua etxebizitzaren alorreko lexikoa ezagutzen joatea da. Horretarako, ematen zaizkien argazki batzuen azpian hitzok jarri behar dituzte. Lehendabizikoak orokoragoak dira eta besteak etxearen parte direnak.

Banaka nahiz taldeka egin dezakete.



N **Zer iruditzen zaizu, Begoña?**

Helburua

Aditu duten entzungaian iritzia eskatu eta adostasuna adieraztera zuzenduta dauden nozioak agertu dira. Hori da gogoetagai duguna. Ikasleek ohartu behar dute zein esaldi erabiltzen diren nozio hauen aditzera emateko.

3.A Jarduera **Lexikoa**



Entzumena

Edukiak

Elkarrizketa entzun ondoren, maila lexikoa sakontzen segituko dugu. Lehen sustantiboak landu badira, orain aditzak eta adjetiboak izango dira langai. Betiere alor semantiko beraren inguruan.

Soluzioak

E	T	I	P	A	H	K	N	U	I	P	L
R	E	F	I	U	L	A	E	D	F	G	T
R	S	R	U	L	P	O	B	T	R	O	L
E	R	O	S	I	S	H	K	T	I	L	P
N	Z	M	L	P	I	E	S	A	H	J	G
T	B	A	S	E	R	E	T	A	T	M	E
A	K	Z	K	I	O	E	R	U	T	U	A
N	J	A	S	F	H	G	I	M	L	U	U
H	A	N	D	I	A	B	Z	E	O	D	K
A	E	Z	U	R	I	O	L	R	R	L	H
R	X	D	E	S	E	G	O	K	I	A	L
T	Z	A	R	E	T	U	K	E	J	S	B
U	S	R	T	U	I	O	P	A	S	Z	Z

3.B

Jarduera

Baietz dena ulertu!

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** elkarrizketa. Hiru pertsonaren artekoa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa jasotzea.
 - Komunikazio-era: interakziozkoa: ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: kaseta.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena.
 - Gaia: ezagun samarra.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: ikasleek informazio orokorra jaso duten ala ez egiaztatzea.
- **Adierazpide linguistikoak:** (Ikus 1.jarduera)
- **Adierazpide pragmatikoak:**
 - Leku batera sartu aurretik, baimena eskatzea
 - Adostasuna adieraztea
 - Agurrak (formala, lagunartekoa)

Prozedura

Hasieran deus ere irakurri gabe, adi dezatela entzungai osoa. Bertan, etxebizitza bat eros-
tea hizpide dutela, inmobiliaria bateko langilea eta lehen atera zaigun bikotea arituko dira
hizketan. Ikasleek, kontestuez jabetzen direnean, ikasle orrian dituzten galderak irakurriko
dituzte eta, entzungaia berriro aditutakoan, erantzungo dute. Behar izanez gero edo ea
asmatu duten ala ez konprobatzeko, berriro jar daiteke entzungaia testua aurrean dutela.
Gutxienez testua bi aldiz entzutea komeni da.

Entzungaia

Inmobiliariako langilea eta gure bikotearen arteko elkarrizketa.

Begoña: Pom, pom, pom, arratsalde on! sartzen ahal gara?

Langilea: Bai, bai, sartu, sartu, nola ez.

Beñat: Arratsalde on!

Langilea: Baita zuei ere! Eseri, eseri.

Begoña: Eskerrik asko. Hara, etxe bila gabiltzalako etorri gara hona.

Langilea: Ongi, eta zer nahi duzue, erosi ala errentan hartu?

Beñat: Erostea gustatuko litzaiguke.

Langilea: Konforme. Nolako etxea nahi duzue?

Begoña: Beno, niri txaletak gustatzen zaizkit, baina oso garestiak direla uste dut. Orduan, pisu bat erostea izango da onena.

Beñat: Bai, bi logelako pisu txiki bat nahikoa izango litzateke. A hori bai, terrazarekin.

Langilea: Orduan atiko bat nahi duzue. Atikoak ere garestiak dira. Zenbat gastatu nahi duzue?

Begoña: 90.000 euro gutxi gora-behera, 90.000-120.000 euro bitarte.

Langilea: Ea, bada, ikus dezagun zer dagoen:

1.- Atiko bat dugu Errotxapean berri-berria. Bi logela, sukalde bat, egongela bat, komun bat eta terraza. Pisuak 60m² ditu eta terrazak 30m².

2.- Hemen ere bada beste bat Mendebaldean 120.000 euro balio duena. Logela bat, sukaldea, egongela eta komun bat ditu. Garajea eta trasteroa barne. Txiki samarra, ezta?

Beñat: Bai, guk bi logelako bat nahi genuke. Eta bi komun dituen.

Langilea: 3.- Beste bat dago Etxabakoitzen. Barañain ondoan. Hau handixeagoa da, 60m² ditu. Sukaldea, egongela handi bat, bi logela, bi komun eta terraza handi bat, 40m² dituen. Hau egokia izan daiteke, ezta?

Begoña: Bai, bai, oso egokia. Eta prezioa?

Langilea: Oso galdera ona egin duzu. 180.000 euro, garajea eta trasteroa barne. Garasti samarra agian, baina interesatzen bazaizue, negoziatzen ahal dugu.

Beñat: Oso atiko polita da. Zonaldea ere gustukoa dut. Benetan gustatzen zait. Ez da batere merkea, e? Beno, zuri zer iruditzen zaizu Bego?

Begoña: Garestia da, baina niri ere gustatzen zait. Guretzat oso egokia da. Hori da nahi genuena.

Langilea: Ederki, gustatzen bazaizue, gordeko dizuet eta etzi, arratsaldeko 6etan, gertzen ahal gara prezioaz hitz egiteko. Ongi iruditzen al zaizue?

Beñat: Bai, bai oso ongi. Nik uste dut akordio batera ailegatuko garela.

Langilea: Orduan, etzi 6etan, ezta?

Begoña: Oso ongi.

Langilea: Tori, badaezpada ere nire telefonoa emanen dizuet, nahi duzuen edozein galdera egiteko.

Beñat: Ederki. Beno, bada, etzira arte orduan.

Langilea: Konforme, agur.

Soluzioak:

1. Azkenean

	BAI	EZ
1. Etxe bat errentan hartuko dute.		X
2. Txalet bat alokatuko dute.		X
3. Pisu bat, logela batekoa, erosiko dute.		X
4. Bi logelako eta terrazarik gabeko pisu bat erosiko dute.		X
5. Komun bakarra duen atiko bat erosiko dute.		X
6. Bi komun eta bi logela dituen atiko bat erosiko dute.	X	

2. Prezioarekin zer gertatzen da?

	BAI	EZ
1. Ezin da aldatu, fijoak delako .		X
2. Begoñak eta Beñatek ez dela batere garestia pentsatzen dute.		X
3. Begoñak eta Beñatek oso merkea dela pentsatzen dute.		X
4. Negoziatzen ahal da, fijoak ez delako.	X	

N

Egun on! Sartzen ahal gara?

NOZIOAK

Helburua

Aditu duten bigarren entzungai honetan baimena eskatu eta agur formala zein lagunartekoa adierazteko erabiltzen diren nozioak agertu dira. Hori da gogoetagai duguna. Ikasleek ohartu behar dute zein esaldi erabiltzen diren nozio hauen aditzera emateko.

4.

Jarduera



Mintzamena

“Merke” inmobiliaria, bai esan?

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamena.
- **Testua:** elkarrizketa / deskribapena.
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea:
 - Eginkizun jakin bat betetzea: batzuek etxebizitza bat erosi edo alokatzea, eta beste batzuek saldu edo alokatzea.
 - Deskribapena.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena: etxebizitza baten sal-erosketa.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak (eremu semantikoari dagozkionak)
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
- **Adierazpide pragmatikoak:**
 - Leku batera sartu aurretik, baimena eskatzea
 - Adostasuna adieraztea.
 - Agurrak (formala, lagunartekoa)
 - Iritzia eskatzea

Prozedura

Rol joku bat proposatzen da. Binaka jarriko dira ikasleak eta bikote bakoitzari fitxa bana emango zaie.

A fitxa dutenek etxebizitza bat erosi nahi izango dute. Nolakoa etxea erosi nahi duten erabakitzeke orduan, nahitaezkoa izango da ikasleak ados jartzea. Eginkizun hau aurrera eramateko fitxan aurkituko dituzte zenbait informazio lagungarri. Behin erabakia hartutakoan, idatziz prestatuko dute aukeratu duten etxearen deskribapena. (Idazki hau erabil dezakete rol-jokua egin ahal izateko).

Ondoren, inmobiliariara joko dute beren eginkizuna betetzera. Bukatzen dutenean, idatziz egingo dute erosi duten etxearen deskribapena. Planoa ere marraztuko dute. Azkeneko pausua, eta plano aurrean dutela, ahoz gainerako ikasleei prozesuaren berri ematea izango da, hau da, hasieran nolako etxea erosi nahi zuten adieraziko diete eta azkenean nolako etxea erosi behar izan duten. Egin duten plano a horman jarriko dute zintzilik.

B fitxa dutenek etxebizitza bat alokatu nahi izango dute. Prozedura aurreko bera da.

C fitxa dutenak inmobiliaria bateko langileak dira. Katalogo moduko bat dute fitxan bertan, beraz katalogo hori aztertu eta daturen bat (prezioa...) jartzeari ekingo diote.

Rolak aldatzea komeni da. Lehen bezeroak izan direnak, gero saltzaileak izango dira, eta alderantziz.



Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** idazmena.
- **Testua:** deskribapena. Etxe batena.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: lagun-lagun.
 - Komunikazio-kanala: eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: lagunartekoa.
 - Gaia: ezaguna, mundu ezagutzatik hurbil samarrekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Izenak: eremu semantikoari dagozkionak.
 - Adjetiboak: kualifikatiboak.
 - Aditza: oraina.
 - Posposizioak.

5.

Jarduera



Mintzamena

Txalet bat izango banu...

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamena.
- **Testua:** elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa trukatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: galde-erantzun laburrak
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: ahalik eta benetakoena.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbil samarrekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak (eremu semantikoari dagozkionak)
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori
 - Nor-nori-nork
 - Posposizioak.
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Juntadura
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Txalet bateko planoak izango dute langai. Txalet horrek bi solairu ditu: beheko solairua eta lehenengoa. Jarduera hau bikoteka burutu behar denez gero, bakoitzak solairu bateko planoak hartu eta zenbat gela dituen, zer izen duten eta non dauden ere deskribatu beharko diote elkarri. Batak deskribapena egiten duenean, besteak paper batean planoak marraztuko du, noski, bestearen papera ikusi gabe. Dena bukatutakoan, bion lana konprobatuko dute.

Nahi izanez gero, altzariak ere lan daitezke.

Arian, arian edo zer zulatzen da

**ZER
IKASI
DUT?**

Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaidea eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen... jakitun den heinean, arrakastatsua izango da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura


Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hiru jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.

3

Animaliak



Kurrin-kurrin





Atariko

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamina.
- **Testua:** ellkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: animaliei buruzko iritzia azaltzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: gai arrunt bati buruzko iritzia trukatzea.
 - Gaia: ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[etzira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak
 - Deklinabidea: Nork
 - Modu-adberbioak: gaizki, ongi
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nori
 - Nor-Nork (nor 3.)
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpekoak:
 - Kausazkoa: -lako, -tzeko

Prozedura

Ariketa honen helburua gaien sartzeta da, nolabaiteko berotze ariketa gisa dago planteatua. Aurrena binaka egingo dute eta gero talde guztiaren aurrean beren iritzia azalduko dituzte. Ikaskideen aurrean azaltze hori garrantzitsutzat jotzen dugu motibagarri suertatzen delako.

2.A

Jarduera



Entzumena

Ezetz asmatu!

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** entzumena.
- **Testua:** bakarrizketa. Animalia batzuen deskribapenak
- **Kontestua.**
 - Komunikazioaren xedea: entzundakoarekin hipotesiak egitea.
 - Komunikazio-era: Interakziozkoa; Ikaslearen ezagutza-mailara egokituz (abiadura, ahoskera, zaratarik ez...).
 - Komunikazio-kanala: bitartekoak medio (kaseta).
 - Gaia: entzuleentzat gai ezaguna.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
 - Eginkizunak: pista batzuk emanda, hipotesiak egin behar dituzte atzean ezkututzen diren animaliak zein diren asmatu arte.
- **Adierazpide linguistikoak.**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak: eremu semantikoari dagozkionak
 - Adjetibo kualifikatiboak
 - Aditza: Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Ikasleek zintan datorren lehenengo entzungaia aditutakoan, pistak lotuko dituzte definizio horien atzean ezkututzen diren animaliak zein diren asmatzeko. Lagungarri gisa, animalia batzuen irudiak agertzen dira hortik aukeratzeko. Lehendabizi, definizio guztiak entzutea komeni da. Gero banan-banan adituko dituzte behar adina aldiz. Hona hemen soluzioa.

- 1 krokodiloa
- 2 urtxintxa
- 3 astoa
- 4 txerria

- 5 igela
- 6 saguzarra

Ikasleek entzungo dutena:

1.- Krokodiloa

Lehorrean bizi naiz, baina oso gustura egoten naiz uretan. Igerian oso trebea naiz eta gose naizenean, isil-isilik hurbiltzen naiz animaliangana. Aho luze-luzea dut, hagin eta hortz zorrotzez betea. Ehiztariek izugarri maite dute nire larrua, gero poltsak, zapatak eta abar egiteko. Jertse eta polo garesti batzuetan ere agertzen naiz dotore-dotore.

2.- Urtxintxa

Zuhaitz artean bizi naiz, horregatik gorputz txikia dut eta oso arina naiz. Oso izutia naiz, nor-bait ikusten dudanean, ezkututzen naiz eta. Buztan iletsua dut, oso ederra eta luzea. Intxaurrak, hurrak eta fruitu lehorrak jaten ditut. Pertsona bat azkarra, argia denean, nirekin konparatzen dute, baina ez naiz azeri bat.

3.- Astoa

Ez naiz oihanean bizi, baserrietako ikuiluetan baizik. Beraz, ez naiz basapiztia, etxe-aberea naiz. Lau hanka ditut, txikia naiz eta oso ale gutxi geratzen gara. Buztana luzea dut eta euliak uxatzeko erabiltzen dut. Belarri handi-handiak ditut eta irakasleek oso gutxi dakitenei jartzen dizkiete. Idazle ospetsu batek liburu baten protagonista egin nau eta Platero izena jarri dit.

4.- Txerria

Ez naiz oihanean bizi ezta uretan ere, lehorrean baizik. Lokatzetan egoten naiz hobekien. Etxe-aberea naiz, asko eta denetik jaten dut, baina oso usain txarra botatzen dudala esaten dute nire jabeek. Urtean zehar oso lasai eta bapo bizi izaten naiz, errege bat bezala; baina negu partean, San Martin egunean edo, hiltzen naute odolkiak, txorizoak eta urdaiaz-pikoak egiteko. Hau bizimodu tristea!

5.- Igela

Lehorrean bizi naiz, baina uretan, urmaeletan, bizitzea gustatzen zait. Aho handi bat dut eta nire begiak handiak eta oso irtenak dira. Azala berdea dut, baina ez naiz martetarra. Mingaina luzea dut eta horrela harrapatzen ditut intsektuak. Ipuinetan ere agertzen naiz eta musu ematen badidate, printze eder bat bihurtzen naiz.

6.- Saguzarra

Txiki-txikia naiz eta oso itsusia. Ni gabe ia-ia ez dago beldurrezko filmerik eta beti hegaldaka agertzen naiz. Hego beltzak eta handiak ditut; beraz hankak ez ditut erabiltzen mugitzeko. Leku ilunetan bizi naiz, harkaitz artean. Lo egiteko buruz behera jartzen naiz sabaitik zintzilik. Zuek ez dakit, baina ni oso eroso egoten naiz honela. Ikusmen txarra dut, ia-ia ez dut ezer ikusten, baina ez dut behar, radar antzeko bat dut eta.

2.B

Jarduera



Irakurmena

Irakurri eta pentsatu

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Deskribapen esaldi solteak.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Zenbait baieztapen kontzepuekin lotzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Akademikoa.
 - Komunikazio-kanala: Klaseko ariketa idatzia.
 - Komunikazio-era: Ariketarako propioa sortua.
 - Gaia: Ezaguna
 - Eginkizunak: Baieztapen batzuk emanda, hipotesiak egin behar dituzte atzean ezkutzen den animalia zein den asmatzeko.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Adjetiboak: Kualifikatiboak.
 - Aditza: Indikatibo orainaldi puntukaria.
 - Xedea: -t(z)eko.
 - Eremu semantikoari dagozkion sustantiboak.

Prozedura

Ariketa honetan lehenago zintan entzun dituzten zenbait baieztapen izango dituzte (18 gutzira). Esaldi bakoitza irakurri eta gero, alboan jarri behar dute zein animaliarri dagokion. Zuzentzeko hemen doakizu soluzioa.

ESALDIAK

- 1 Gorputza txikia du, oso arina eta izutia da.
- 2 Baserrietako ikuiluetan bizi da eta buztan luzea du.
- 3 Oso usain txarra botatzen du.
- 4 Buruz behera lo egiten du sapatik zintzilik.
- 5 Hortz eta hagin zorrotzak ditu.
- 6 Ia-ia ez du ezer ikusten.
- 7 Begi handiak eta irtenak ditu.
- 8 Zuhaitz artean bizi da eta buztan iletsua du.
- 9 Leku ilunetan bizi da.
- 10 Baserrietako ikuiluetan bizi da eta oso buztan txikia du.
- 11 Etxe-aberea da eta belarri handiak ditu.
- 12 Mingain luze-luzea du.
- 13 Hego beltz handiak ditu.
- 14 Lokatzetan gustura egoten da.
- 15 Lehorrean bizi da, baina igerilari ona eta isila da.
- 16 Oso txikia eta oso itsusia da.
- 17 Larrua oso polita du.
- 18 Errege bat bezala bizi da urtean zehar.

ANIMALIAK

urtxintxa
 astoa
 txerria
 saguzarra
 krokodiloa
 saguzarra
 igela
 urtxintxa
 saguzarra
 txerria
 astoa
 igela
 saguzarra
 txerria
 krokodiloa
 saguzarra
 krokodiloa
 txerria

2.C

Jarduera

Gogoan hartu



Lexikoa

Edukiak

Helburua: Lexiko-ariketa honen bidez basapiztia / etxe-aberea eta uretan / lehorrean kontzeptuak ea bereizten dituzten neurtzea.

Prozedura

Aurrena, lehenengo galderari erantzuna emango diote. Bigarrenik animaliak sailkatuko dituzte eskatzen dena kontuan hartuz. Hona hemen bigarren partearen erantzuna.

URETAN

Krokodiloa

Igela

LEHORREAN

Krokodiloa

Urtxintxa

Astoa

Txerria

Igela

Saguzarra

N

Aizu, baduzu astoaren burua?

NOZIOAK

Helburua

Hurrengo jardueran zerbait eskatzeko erabiltzen den nozioa agertuko da. Hori da gogoetagai duguna. Ikasleek ohartu behar dute zein esaldi erabiltzen den nozio honen aditzera emateko.

3.

Jarduera



Irakurmena

Animaliak osatu

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamina.
- **Testua:** Elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Beste bati zer bait (kartak) eskatzea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: Berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: Galde-erantzun laburrak.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: Benetakoa: ez duenak duenari eskatzea.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[etzira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak: animalien gorputz-atalak
 - Aditz trinkoekin galderetan erabiltzen den Baduzu...?
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Determinatzaile mugatua / partitiboa oposizioa bereiztea.
 - Baiezko eta ezezko perpausak
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Eskatzeko formulak: Aizu, baduzu...?
 - Eskaerari erantzutekoak: Bai, badut. Tori. / Ez, ez dut (Ez, sentitzen dut).

Prozedura

Ariketa honek bi zati ditu: lehenengo partean, eta ikasleak hiru hiru daudela, entzungaia agertu diren 6 animalien gorputz-atalak (burua, atzeko hanka(k), aurreko hanka(k), gorputza, buztana, ezkerreko hegoa, eskuinekoa) ezagutzeko dituzte, horietatik baita kartetan azalduko direnak. Bigarren partean animaliak osatu beharko dituzte. Horretarako jarri ikasleak hiru hiru, lehen bezala, eta talde bakoitzari eman 3 animaliarri dagozkien kartak. Ikasleek mahaian jarriko dituzte karta guztiak eta, nahastu ondoren, hartzeari ekingo diote.

Kontua da animalia horien irudia osatzea, familia-kartak balira bezala, baina horretarako kartak beste ikaskideei eskatu beharko dizkiete: *Aizu, Mikel, baduzu astoaren burua? / Bai, badut, tori. Ez, ez dut.* (Ikasleei ikusarazi behar zaie *baduzu libururik? eta baduzu liburua?* desberdinak direla).

4.

Jarduera

Egun bat zoologikoan



Idazmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Idazmena.
- **Testua:** Deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Informazioa ematea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Ikasle-ikasle.
 - Komunikazio-kanala: Eskuz bat-batean idatziak.
 - Erabilera-esparrua: Lagunartekoa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Deskribapena:
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak (eremu semantikoarenak)
 - Adjetiboak: kualifikatiboak
 - Modu-adberbioak: gaizki, ongi
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-Nori
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Baiezko eta ezezko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Ikasleek idazteko motibazio handiagoa izan dezaten, pentsatu dugu idazlan horiek ikaste-teen artean trukatzeari. Honela ez dute idazteagatik idatziko, benetako helburu komunikati-boa dagoelako baizik. Asmo honen berri eman ikasleei.

5.

Jarduera

Txerri bakoitzari bere sanmartina ailegatzen zaio



Irakurmena



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamena.
- **Testua:** elkarrizketa.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: informazioa ematea.
 - Komunikazioaren partaideen arteko harremana: berdinen artekoa
 - Komunikazio-era: hasieran erantzun laburrak, geroago zabaltzen joango direnak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre.
 - Komunikazio-egoera: benetako informazio trukaketa.
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: doinuera eta ahoskera euskara estandarrean.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - il>[ll]
 - in>[ñ]
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak: animalien gorputz-atalak
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Baiezko eta ezezko perpausak.
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Ariketa honek ikastunitate honetan agertu den animalia batek, txerriak hain zuzen, Euskal herriko tradizio soziokulturalean izan duen eta oraindik ere baduen garrantziaz ohartaraztea du helburu. Aurrena bikoteka jarri ikasleak eta gero klase osoari konta diezaiotela aipatu dutena.

Arian, arian edo zer zulatzen da

ZER
IKASI
DUT?

Helburua

Gaur egungo metodologiaren arabera, ardatz nagusia ikaslea da, bera baita ikas-prozesuaren partaide eta aktore nagusia. Ikaslea bere ikas-prozesuaz jabetzen den heinean, zergatik eta zertarako ikasten duen, nora iritsi nahi duen... jakitun den heinean, arrakastatsua da bere ikas-prozesua. Ikaslearen autonomia bultzatzera, hain zuzen ere, dator azkeneko atal hau.

Prozedura

Ikastunitatea bukatu ondoren, ikasleek, binaka edo hiru jarrita, beteko dute azken fitxa. Gero, besteen aurrean bikote bakoitzak eman dezake ikasi duenaren berri; hortaz, irakasleak gogoetarako beta ematen duen ariketa hau tresnatzat har dezake ikasleak adierazpide linguistiko zein pragmatikoak bereganatu dituen ala ez ikusteko.

4 Ogibidea



Beti lanean

Oraingoan behintzat jolasten!

**Edukiak**

- **Hizkuntz trebetasuna:** mintzamena
- **Testua:** Elkarrizketa
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: joko aurrera eramatea.
 - Komunikazio-era: txanda laburreko hizketaldiak.
 - Komunikazio-kanala: aurrez aurre
 - Gaia: solaskideentzat gai ezaguna.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Adjetiboak: lasai, aspergarri, triste, eder, interesgarri, erakargarri, zaratatsu, baketsu
 - Modu-adberbioak: gaizki, ondo poliki, primeran...
 - Iritzi-adberbioak: agian, dudarik gabe, beharbada
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Aspektua:
 - egunerokotasuna
 - burutua
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpeko esaldiak:
 - konpletiboa: (e)la
 - kausala: (e)lako
 - Elementu diskurtsiboak:
 - Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak:
 - esandakoarekiko adostasuna azaltzeko:
 - bai, hala da, bistan dago
 - ezadostasuna azaltzeko:
 - ez dut uste, ez nago konforme
 - zalantza adierazteko:
 - ez dakit, ez nago seguru

Ogibidea

- iritzia azaltzeko:
oso ona/ondo
- bete lana egiteko formulak:
bueno, ah, zera, nola esan ba...

Prozedura

Ikasleak bakarka lanbide baten izena idatziko du koadroan eta hau ez dio inori erakutsiko. Jarraian aukeratutako lanbidea definitzen duten 3 esaldi idatziko ditu paperean duen koadroan eta denek bukatutakoan hiruak egingo den txapelketa antolatuko da. Taldetxoetan txandaka eta ozenki irakurri bakoitzaren definizioak eta azkarren erantzun eta asmatzen duenak eramango du puntua. Bi puntu lortzen dituenak irabaziko du.

2.

Dena langileak...

Jarduera



Lexikoa

Helburua

Eremu semantiko honi (OGIBIDEA) dagokion hiztegia ikastea.

Prozedura

Ikasleak irudian azaltzen den lanbide bakoitzari dagokion izena jarri beharko dio. I rudirik gabe geratu den lanbidea zein den aurkitu beharko dute: okina da.

SOLUZIOAK:

arrantzale



dantzari



bulegari



pilotu



dentista



suhiltzaile



musikari



nekazari



aktore



mediku



udaltzain



sukaldari



ehiztari



ile-apaintzaile



futbolari



taxi-gidari



postari



irakasle



apaiz

3.

Lanbidea aukeratzen

Jarduera



Mintzamena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Mintzamena
- **Testua:** Elkarrizketa
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Iritzia azaltzea.
 - Komunikazio-era: Txanda laburreko hizketaldiak.
 - Komunikazio-kanala: Aurrez aurre
 - Gaia: Solaskideentzat gai ezaguna
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - /Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Adjetiboak: lasai, aspergarri, triste, eder, interesgarri, erakargarri, zaratatsu, baketsu
 - Modu-adberbioak: gaizki, ondo, poliki, primeran...
 - Iritzi-adberbioak: agian, dudarik gabe, beharbada...
 - Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Nor-nori (nor 3.)
 - Aspektua:
 - egunerokotasuna
 - burutua
 - Baiezko, ezezko eta galderazko perpausak
 - Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina
 - Menpeko esaldiak:
 - konpletiboa: (e)la
 - kausala: (e)lako
 - Elementu diskurtsiboak:
 - Interakzioan erabiltzen diren esamoldeak.
 - esandakoarekiko adostasuna azaltzeko:
 - bai, hala da, bistan dago
 - ezadostasuna azaltzeko:
 - ez dut uste, ez nago konforme
 - zalantza adierazteko:
 - ez dakit, ez nago seguru

- iritzia azaltzeko:
oso ona/ondo
- bete lana egiteko formulak:
bueno, ah, zera, nola esan ba...

Prozedura

Bakarka, gustokoen duen lanbidea aukeratu eta lanbide honek dituen alde onak zerrendan jarriko ditu. Gutxien gustatzen zaion lanbidea ere aukeratuko du eta kasu honetan, alde txarrak zerrendatuko ditu.

Bukatutakoan, berriro hiruak (edo binaka), ikasle bakoitzak, ahoz, bere koadroa bere taldekideei azalduko die.

4.A

Jarduera

Ezkutaketan



Entzunena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Entzunaren ulermena.
- **Testua:** Lanbideen deskribapena.
- **Kontestua:**
 - Komunikazioaren xedea: Informazio zehatza jasotzea.
 - Komunikazio-era: Interakziozkoa.
 - Komunikazio kanala: Bitartekoak medio (kasetak).
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu-ezagutzatik hurbilekoa.
 - Hizkera: Doinuera eta ahskera euskara estandarrean.
 - Eginkizuna: Hiru istoriotxoetan ematen diren datuekin, protagonisten lanbideak asmatu behar dituzte.
- **Adierazpide linguistikoak:**
 - Alderdi fonologikoa:
 - Z/ /S/ /X/ bereiztea
 - /TZ/ /TS/ /TX/ bereiztea
 - Asimilazioak:
 - ez naiz >[enaiz]
 - ez dira >[eztira]
 - Alderdi morfosintaktikoa:
 - Izen arruntak
 - Denbora-adberbioak:
 - Batzuetan, besteetan, beti...

- Adjetibo kualifikatiboak
- Gaiari dagokion lexikoa
- Aditza:
 - Indikatibo oraina
 - Nor
 - Nor-nork (nor 3.)
 - Aditzaren aspektua: egunerokotasuna
- Baiezko eta ezezko perpausak
- Perpaus elkartua:
 - Emendiozkoa: eta
 - Hautakaria: edo
 - Aurkaritzakoa: baina

Prozedura

Hiztegia ezagutzen dutenez, zinta bi-hiru aldiz jarri eta hiru lanbideak asmatzen saiatuko dira. Bukatutakoan ziurtatu ea ongi egin eta ulertu duten.

Testua:

Joxek denda batean lan egiten du. Denda honetan ez da arroparik saltzen, saltzen dena jan egiten da. Saltzen den janaria ez da arraina baina arraultzak bai, arraultzak saltzen dira. Denda horretan janari batzuk zintzilik egoten dira. Denda hauetako gizon eta emakumeek bata edo amantal zuri-zuria eramaten dute baina erraz zikintzen dira eta askotan bata edo amantal hori gorri-gorri izaten dute.

Jokinek bere lanean ordu asko eserita pasatzen ditu. Eserita bai, baina batetik bestera ibiltzen da beti. Batzuetan herri batera, besteetan beste herrietara. Edariak eraman eta ekarri egiten ditu. Goizez eta arratsaldez bueltaka ibiltzen da baina gauez, lotara, lotara beti etxera joaten da.

Nekane ez da gaztea baina beti neska-mutil oso gazteekin ibiltzen da lanean. Ahotsa oso inportantea da bere lanean eta pazientzia ere bai. Zenbakiekin, buruketak egiten... oso azkarra zen txikitan eta askoz gehiago ikasi zuen. Heldua izatera ailegatu zenean berak ikasi zuena besteei irakastea erabaki zuen.

ERANTZUNAK:

ZER DA JON?

- okina
- harakina
- iturgina



HARAKINA

ZER DA JOKIN?

- kamioilaria
- taxi-gidaria
- dantzaria



KAMIOILARIA

ZER DA NEKANE?

- kantaria
- medikua
- irakaslea



IRAKASLEA

4.B

Jarduera

Berriro txapelketara!

Idazmena



Mintzamina

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Idazmena
- **Testua:** Deskribapena
- **Kontestua:**
 - Idazketaren xedea: Informazioa ematea
 - Igorle-hartzaile harremana: Ikasle-ikasle
 - Komunikazio-kanala: Eskuz bat-batean idatziak
 - Gaia: Ezaguna, ikaslearen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
- **Adierazpide linguistikoa:**
 - Adjetiboak: Kualifikatiboak.
 - Atzizki adjetibatzaileak: -garri, -tar, -dun, -ti, tsu
 - Aditza: Indikatibo orainaldi puntukaria.
 - Eremu semantikoari dagozkion sustantiboak.

Prozedura

Hirunaka (edo binaka) jarrita, bakoitzak lanbide baten deskribapena egingo du baina lanbidearen izena ez du inon jarriko.

Bukatutakoan, talde bakoitzaren hiru idazlanak (deskribapenak), irakasleak banatuko dituen sobreak sartuko dira.

Jarraian txapelketa antolatuko dugu. Bildutako sobreak berrito banatuko dira baina talde bakoitzari berea ez dena emango zaio. Taldeko hirurek, txandaka eta bere taldearentzat, hiru deskribapenak ozenki irakurriko dituzte eta ze lanbideri buruzkoak diren asmatu behar dute.

Sobreak banatu eta irakasleak bat, bi eta hiru esandakoan hasiko da txapelketa. Sobreko hiru lanbideak lehenengo asmatzen dituen taldea izango da irabazlea.

5.

“Astoa eta lau jakintsuak”

Jarduera



Irakurmena

Edukiak

- **Hizkuntz trebetasuna:** Irakurmena.
- **Testua:** Narrazioa.
- **Kontestua:**
 - Irakurketaren xedea: Informazioa jasotzea.
 - Igorle-hartzaile harremana: Publikoa.
 - Komunikazio-kanala: Ipuin liburua.
 - Komunikazio-era: Euskaraz sortua.
 - Gaia: Ikasleen mundu ezagutzatik hurbilekoa.
 - Eginkizunak: Bukaera gabeko ipuina irakurri, ulertu eta honi bukaera asmatzea.
- **Adierazpide linguistikoa:** NARRAZIOA.
 - Gertaeren egilea (NORK/NOR)
 - NORI zuzendua
 - NON, NOIZ gertatua
 - NOLA gertatua.
 - Orain eta lehenaldiko gertaerak: burutuak, ez-burutuak eta ez-burutu puntukariak.
 - Narrazioaren adierazleak:
 - Sarrera: behin, behin batean, egun batean...
 - Erritmo-aldatzaileak: halako batean, orduan,..
 - Aldi-antolatzaileak: hurrengo batean,..
 - Norbaiten esanak, usteak adierazteko zeharbidea: -(e)la
 - Denborazkoak: -(e)nean, eta gero, ondoren, aurretik,..

Prozedura

Ikasleak bukaera gabe eman zaion ipuina irakurri, ulertu eta bukaera asmatuko dio. (Ondo legoke bakoitzak egindakoa talde osoan ozenki irakurtzea).

Ikasleek bukaera eredia izan dezaten, eman zaizkion bi bukaeretatik benetakoa zein den asmatzea izango da bigarren eginkizuna. Bakoitzak bere ustea paperean jarritakoan emango du irakasleak honen berri.

BENETAKO BUKAERA

“Handik ordu bi baino lehen izugarritzko zaparrada bota du.

Hau ikusi duenean, apustu egin duen jakintsuak, bere lagunengana joan eta esan die:

– Lagunak, goazen bakoitza bere herrira, ikuiluko astoak ere guk baino gehiago daki eta”.

6.

Kantatuko dugu?

Jarduera

Prozedura

“Paristik natorren” kanta prestatu behar dute. Ezagutzen badute, erraz egingo dute. Talde bakoitzak instrumentu bat aukeratu eta instrumentu horri dagokion zatia, talde horrek baka- rrik kantatuko du.

“Paristik natorren artista bat naiz ni, ondo jotzen dut, baita guk ere” zatia, denek kantatuko dute eta honen ondoren, talde bakoitzak bere zatia botako du. Adibidez: “txistua nik jotzen dut piriri, piriri,.....piririririri”.

Kanta ez badute ezagutzen, denen artean lortu beharko dute, bestela, irakaslearen lagun- tza eskatu beharko dute. Lortu, ikasi eta gero goian aipatu bezala egin.

Ahal bada grabatu eta klasean entzun eta baloratu zer moduz atera den.

N

Elkarrizketan

NOZIOAK**Helburua**

Bi elkarrizketetan agertzen diren esapideetan orokorrean eta batez ere koadrotxoetan azal- du diren funtzioetan arreta jartzea.

Prozedura

Ikasleek koadrotxoan agertzen diren funtzioak irakurri eta ikasi eta gero, beherago dituzten elkarrizketak osatuko dituzte ematen zaizkien aukeren artean erantzun egokia aukeratuz.

SOLUZIOAK:

Joxe zerbitzaria da Iruñeko jatetxe batean. Bapatean Iñaki eta bere aita, Julio, sartu dira:

Joxe: Kaixo Iñaki!

Iñaki: Kaixo **aspaldiko**, hemen lan egiten duzu!

Joxe: Bai, hilabete daramat hemen lanean.

Iñaki: Ba bazkaltzera etorri gara baina ez dakit lekurik izango
Dugun, mahai guztiak beteta kusten ditut.

Joxe: Ez estutu, txoko bat aurkituko dizuet. Zerbait hartu nahi duzue jatera eseri baino lehen?

Julio: Ez, **estimatu dago** baina ari jan beharko dugu.

Iñaki: Bale ba eseri eta **on egin!**

Joxe: Eskerrrik asko. Egongo gara

Tomas Bizkaiako herri txiki batera joan da. Herri honetan dagoen baserri batera bisita bat egitera joan nahi du. Baina Tomasek egun txarra du, oso nekatuta dago eta taxi bat hartzea pentsatu du:

Felipe: **Aizu** mutiko! Ba al da taxirik herri honetan?

Herritarra: **Jakina**, Joxe Mariren taxia!

Felipe: Ba al dakizu Joxe Mari non dagoen?

Herritarra: Ba zoritxarrez gaixorik dago eta herria taxirik gabe dugu.

Felipe: Ez da izango! **Lur jota** nago eta taxia behar dut Axuri baserrira ailegatzeko!

Herritarra: Nahi baduzu motorrean eramango zaitut.

Felipe: Ba milesker, primera joango naiz.

Herritarra: Ez horregatik eta lehenbailehen bizkortu!

Arian, arian edozer zulatzen da

ZER
IKASI
DUT?

Helburua

Ikasgai honetan ikasi duena burura ekarri eta honetaz konturatzea.

Prozedura

Ikaslearen orrian duten fitxa bakarka bete eta gero, hirunaka jarri eta hiru fitzak konparatuko dituzte (horrela galduago dabilenari falta zaiona emango zaio).